



HONDARRIBIKO UDALA

UDAL ARTXIBO ZERBITZUA HONDARRIBIA



2017

MEMORIA

2018, Maiatza
Begoña Andrés Arratibel



HONDARRIBIKO UDALA

EDUKIEN AURKIBIDEA

Dokumentuan digitalizazioa: Hirigintzako azpifuntseko proiektuen planoak.....	03
XVIII-1975 Biztanleen Erroldako Datu Baseak egokitzeko lanak.....	04
Interes historikoko piezak eskuratzea.....	05
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza.....	06
Dokumentu Kudeaketaren Sistema ezartzea.....	07
Transferentziak.....	08
Ikastgaroak, mimtegiak edo jardunaldiak.....	09
Ondare dokumentalaren egoera ona ri eustea eta eta aurrezaintze lana egitea.....	10
Kontsultak.....	12
Aurrekontua.....	15




HONDARRIBIKO UDALA

ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA PROIEKTUEN PLANOAK DIGITALIZATZEA

Aurten ere Artxibo zerbitzuaren arduetako bati buruz ari gara: gure ondare dokumentala baldintza onenetan kontserbatzeko lehentasunaz.

Aurtengo PROGRAMA izan da Hirigintzako Administrazio Azpifuntseko 6.000 plano digitalizatzea, TIR formatuan (master) eta JPG formatuan (miniaturak).





XVIII-1975 BIZTANLEEN ERROLDAKO DATU BASEAK EGOKITZEKO LANAK

XVIII-1975 bitarteko Hondarribiko Udalekio biztanleen Erroldako dokumentu Serie osoaren digitalizazio proiektua eta datu hustuketa bukatzean datu basea osatzeko eta agertu diren akatsak zuzentzeko lanak.

Udal Artxibo Zerbitzua 2000 urtean hasi zen lan garrantzitsu bat egiten, garai hartan berritzailea zen lana egiten: dokumentazio historikoa digitalizatzen. Lehentasuna eman zitzaion XVIII.mende bukaeratik 1975a arteko Hondarribiko biztanleen Errolden serieari, ale askok zuten kontserbazio egoera txarragatik, hain zuzen ere dokumentazio hori maiz kontsultatua zelako (aldi berean zaharberritze lana egin zitzairen horren beharra zuten aleei).

Erta berean, 2003an beste proiektu garrantzitsu bati eman zitzaion hasiera, Erroldetako datuen hustuketari, kontsulta errazagoa, eraginkorragoa eta azkarragoa izateko.

Edad	Sexo	Estado	Nombre	Apellido
60	C		Juan	Sanchez
50	C		Pedro	Sanchez
30	C		Antonio	Sanchez
20	C		Diego	Sanchez
10	C		Francisco	Sanchez
68	C		Diego	Sanchez
36	C		Diego	Sanchez
26	C		Diego	Sanchez
3	C		Diego	Sanchez
3	C		Diego	Sanchez
62	C		Diego	Sanchez
70	C		Diego	Sanchez
40	C		Diego	Sanchez
30	C		Diego	Sanchez
23	C		Diego	Sanchez
1	C		Diego	Sanchez
53	C		Diego	Sanchez
24	C		Diego	Sanchez
22	C		Diego	Sanchez
10	C		Diego	Sanchez
40	C		Diego	Sanchez
30	C		Diego	Sanchez
20	C		Diego	Sanchez
10	C		Diego	Sanchez
10	C		Diego	Sanchez
10	C		Diego	Sanchez
10	C		Diego	Sanchez

Proiektu horiek urte hauetan guztietan egin dira, 2000. urtetik 2016. urtea arte, beti udal Artxibo Zerbitzuaren kudeaketaren beharren arabera.

Horrela, iaz, bukatu ondoren 1970 eta 1975eko errolden datuen digitalizazioa eta hustuketa, erabilerarekin eta zenbait euskarriren zaharkitzapenarengatik agertu ziren akats eta huts egiteen alderaketa egin zen.

Landu diren erregistroak gutxi gorabehera 26.000 izan dira.





HONDARRIBIKO UDALA

INTERES HISTORIKOKO PIEZAK ESKURATZEA

Aurten, Granadako Ruiz Linares Arte eta Antzinako gauzen Galeriak proposatu zigun Pedro Antequera Azpiriren “Fuenterrabia” izeneko marrazki bat erostea, Mikel Lertxundi Galiana Arte historiagile ezagunaren bidez (hark Pedro de Antequera Azpiriri buruzko azterketa bat du argitaratua).

Eskaintza baloratuta iritzi zen Udalerako interes historiko eta kulturalekoa zela hura eskuratzea.

Piezaren fitxa historikoa:

Egilea: Pedro de Antequera Azpiri (1892-1975), Madrilen jaioa, euskal jatorrikoa, margolari, karikaturagile, marrazkilaria eta kazetari ospetsua.

Data: d/g

Teknika: Tintaz egindako marrazkia

Neurriak: 29,3x21,3 cm



Egileari buruzko aipamen txiki bat:

Madrilen jaiotzen zen 1892 urtean, Zuzenbidean eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen, nahiz eta ilustraziogile, umorista grafiko, idazle eta margolari lanetan aritu zen. Bere karreraren zati bat Gipuzkoan garatu zuen, 1919. urtean Amelia Sansinenearekin ezkondu eta Donostian bizitzen jarri zen garaian. Denboraldi hura emankorrenetzat eta artistikoenetzat jo zen, eta gerra zibilak eten zuen. Karikaturagilea, publizitategilea eta marrazkilaria izan zen Belle Epoque garaiko Donostian, era berean arrakasta izan zuen Madrilan errepublikan eta eta espetxeratu egin zuten kartzela frankistetan; gartzelan erretratoak eta karikaturak egiten jarraitu zuen. Madrilan atxilotu zuten eta Conde de Torreno kartzelan espetxeratu zuten. Ondoren Segoviako Cuéllar espetxean eta Las Comendadoras eta Yeserías kartzelatan egon zen, 1943. urtean askatasun baldintzatua eman zitzaion arte. 1975. urtean hil zen.

Era berean, aurten Francisco Sagarzazu Sagarzazuren familiaren dokumentu eta argazki sorta bat erosteko proposamena egin zaigu, edizio, argitaratze eta hedatze eskubide guztiak lagaz.

Udalaren dokumentu Ondarea aberasteko haren interes historikoa baloratuta, eskuratu egin zen.





HONDARRIBIKO UDALA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZ POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN DIRULAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Kontseilaritzak oraingoan ere 2017ko ekainaren 29ko bere AGINDUAN artxibo propioaren sistema martxan jarri eta sendotzeko toki erakundeentzako dirulaguntza deialdia argitaratu du. Artxibo Zerbitzuak XVIII.etik 1975a arteko Errolda historikoen Datu Basea hobetzeko lan proiektua aurkeztu zuen, eta onartu egin zuten eta 9.909,99€ eman zitzaizkion.

Artxibo Zerbitzurako oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak dirulaguntza hori ematea, hain zuzen ere lagundu egiten direlako udal Artxiboko informazioa deskribatzeko eta eskuratzeko tresnak hobetzeko lan horiek.





HONDARRIBIKO UDALA

DOKUMENTU KUDEAKETAREN SISTEMA HONDARRIBIKO UDALEKO BULEGOETAKO ARTXIBOETAN ETA ARTXIBO OROKORREAN EZARTZEA

Une honetan etengabeko aldaketa garaian gaude Herri Administrazioetako dokumentu produkzioan. Aldaketa horiek sortzen dira Administrazio Elektronikoa etengabe ezartzen ari delako. Alor horretan legeria etengabe betetzeak berarekin dakar guk aurre egin behar diegun behar berriak izatea, eta haien aurrean prest egon behar dugu:

Udal Artxiboak, ikusita gertatzen ari diren eta zuzenean eragiten dioten aldaketa horiek, sortutako arazoei aurre egiteari ekin dio eta Udalaren dokumentu produkzioan esku-hartze ireizpideak ezarri ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ekimen hori gauzatzen da hain zuzen ere, UDALEKO DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA OROKOR ETA INTEGRATU BATEN SISTEMA ezarrita, udal Artxibo Zerbitzutik zuzendua, enpresa adituaren baliabide teknikoak eta giza baliabideak izanda.

DOKUMENTU KUDEAKETAREN SISTEMA hori gauzatzeko behar-beharrezkoa da bi oinarrizko eremutan eragitea –Bulegoetako Artxiboan eta Artxibo Orokorrean- hemen proposatzen diren irizpide estandarizatu homogeneoak aplikatuz:

- **Dokumentu produkzioa sailkatzea:** Sailkapen taula bakarra → Kodifikazioa → Zalantzarik gabeko identifikazioa.
- **Adostutako deskripzioa** → Gaia labur, argi eta zalantzarik sortu gabe azaltzea.
- **Ebaluazio dokumentalaren taulak aplikatzea** → DOBAUBAren arau eta irizpide orokorren arabera, egitea dokumentazioa kontserbatzeko egutegiak: transferentzia, kontserbazio eta ezabatze edo garbiketa epeak eta ezabatze prozesuaren kontrola. Haien bizitza zikloan dokumentazioa eskuratzeari buruzko arauak eta irizpideak aplikatzea.





HONDARRIBIKO UDALA

TRANSFERENTZIAK

2017 urte honetan salbuespen moduan transferentzia ugariak egin dira Bulegoetako Artxibo batzuetatik zenbait arrazoiengatik:

Lehen aipatu den Dokumentu Kudeaketaren sistemak (DKS) beharrezkoa duela kudeaketa edo builegoko artxiboetan esku-harze zuzena.

Gainera, programatuta daudelako Birgaitze Obrak Udaletxeko 3. eta 4. solairuetan. Hain zuzen ere eraikin horren 3. solairua bulegoetako artxiboen biltegiari dagokio, beraz udal bulegoetako han zegoen zenbait dokumentazio Artxibo Orokorra transferitu behar izan da.

Era berean, 4. Solairuko Bulego Teknikoa Isater hustuko denez bulego horietan zeuden dokumentu eta espediente guztiak Artxibo Orokorra eraman dira salbu eta eguneroko lanerako beharrezkoak zirenak.

Gutxi gorabehera 130 metro linealeko okupazioa zenbatu da, 1085 kutxei zegokiena. Artxibategiak.





HONDARRIBIKO UDALA

IKASTARO, MINTEGI, JARDUNALDIETAN... PARTE HARTZEA.

Parte hartzea “Seminarios de Archivos de Aldee / Aldeeko Artxiboei buruzko Mintegia. Clasificación de Archivos municipales – Udal Artxiboen Sailkapena” mintegian, azterketa talde horretako kideetako baten moduan.

Joatea Madrilgo udal Artxiboen XX. Jardunaldietara. Izena: “2018: Odisea en los Archivos, que la Interoperabilidad nos acompañe” 2017ko ekaina. Tokia: El Molar (Madril).

Gaia izan zen Kudeaketa Dokumental Elektronikoaren eta Dokumentu Elektronikoaren Iraupenaren arteko lotura. Araudi elektronikoko berriaren eta elkaroperagarritasunaren arauak aplikatu beharra.

Hitz egin zen Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeaz eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoen 40/2015 Legeaz, Interoperagarritasunari buruzko Eskema Nazionalaz, nahitaezko metadatuak buruz, edo Informazio Administrazioaren Sistemaz (IAS), hain beharrezkoa izanik interoperatzeko. Azken batean, legegintza, zientzia eta artxibo gaiez betetako jardunaldiak.





HONDARRIBIKO UDALA

ONDARE DOKUMENTALAREN EGOERA ONA AURREZAINDU ETA MANTENTZEA.

Udal artxibo Zerbitzuak urtero enpresa aditu bati Artxiboko biltegi-tako ingurugiro eta kontserbazio egoerari buruzko diagnosi bat enkargatzen dio, gure Ondare Dokumentuak egoki kontserbatzeko.

2017 urtean artxiboa osatzen duten aretoen ingurugiro egoera mantentzeko eta Kultur Etxeko, Pampinoteko eta Udaletxeko biltegiei eragin diezaieketen agente biotikoak monotoritzatzeko egindako ikusketen eta tratamenduen laburpena:

Maiatzeko ikuskapena

Hiru artxibo biltegien ikuskapen orokorra eta instalatutako intsektu tranpen mantentze lana.

Ikusketa horretan aldatu ziren lanparen UVA bonbilak eta, bonbilen itsasgarriak eta feromona tranpak beste berri batzuek ordezkatu ziren. Era berean intsektu herrestarientzako tranpak berri ziren. Ondoren, barrutiak zigilatu ziren eta shock ingurugiro tratamendua egin zen.

Gaur egun aretoetan neurtutako agente biotikoen zenbatekoa egokia irizten da:

Pampinot	Udaletxea	Kultur Etxea
22,6°C	24°C	21,6°C
%29HR	%46HR	%41HR

Tranpetan atzemandako agente biotikoen barruan, aipatzekoa da *Tineola biseltiella* espezieko bi intsektu hartu direla espezie horretarako tranpa berezietan. Bi intsektu bakan direnez iritz daiteke agerketa puntual edo bakana dela, baina jarraipena egingo da. Gainera esan behar da UVA lanparen itsasgarrietan pipi arruntaren bi ale agertu direla. Bi espezieak harrapatu dira kultur etxeko aretoan.

Ekain eta Uztaileko ikuskapenak

Argi-Humichem-eko bi teknikariek artxiboetan dauden lizunen ikusketa eta garbiketa egin dute. Aurreko urtean garbitu ziren artxibategiak begiratu ziren eta haien egoera aztertu zen.

Kultur Etxeko artxiboan egindako ikusketan pipi zuloak eta zerrautsa zituzten egur ezkutua zuten zenbait artxibategi antzeman ziren. Erabaki zen artxibategi horiek Shock Termikoko Ganberan tratatzea.

Shock Termikoko Ganberako tratamendua da tenperatura eta hezetasuna kontrolatuta dauden ziklo bat egitea. Ziklo horretan intsektu xilofago guztiak hiltzen dira fase guztietan: arrautza, larba eta heldu. Tratamendu hori Cidemco laborategiek eta CTBAK egiaztatuta daude. Ganberak tenperatura eta hezetasun erregistro bat dute, azaltzen duena egindako zikloa eta zikloa inprimatzea ahabidetzen duena. Zikloa automatikoki egiten da, aurrez ezarritako sistema bati esker. Ziklo osoaren iraupena gutxi gorabehera 48 ordukoa da.



HONDARRIBIKO UDALA

Azaroko ikuskapena

Hiru artxibo biltegien ikuskapen orokorra eta instalatutako intsektu tranpen mantentze lana.

Ikusketa horretan aldatu ziren lanparen UVA bonbilak, bonbilen itsasgarriak eta feromona tranpak beste berri batzuek ordezkatu ziren. Era berean intsektu herrestarientzako tranpak berri ziren.

Gaur egun aretoetan neurtutako agente biotikoen zenbatekoa egokia irizten da:

Pampinot	Udaletxea	Kultur Etxea
21°C	22,5°C	21,4°C
%29HR	%50,2HR	%43,7HR

Tranpetan atzemandako agente biotikoen barruan, aipatzekoa da *Tineola biseltiella* espezieko intsektuak hartu direla espezie horretarako tranpa berezietan. Bi intsektu bakan direnez iritz daiteke agerketa puntual edo bakana dela, baina jarraipena egingo da. Gainera antzeman da artxiboetan kalteak eragin zitzakeen Dermestidae intsektu bat zegoela.

ONDORIOAK

Oro har irizten da aretoen gaur egungo ingurugiro egoera ona dela, eta gomendatzen da horien jarraipena egitea eta ingurumen tratamenduak egitea intsektuen nagusitze garaietan. Aipatu behar da badaudela artxiboetarako arriskutsuak diren intsektuak: *Tineolak*, *Anobidoak* eta *Demestidoak*; Dena dela oso gutxi dira. Espezie horien jarraipen berezia egingo da tranpa bereziak instalatuz.






KONTSULTAK ETA MAILEGUAK

2017 urtean zehar **GUZTIRA 945 KONTSULTA** zenbatu dira.
2017an udal langileei **GUZTIRA 127 dokumentu MAILEGU** laga zaizkie.

KONTSULTAK zehazturik:


→ **ERABILTZAILE** motaren arabera:

■ UDAL LANGILEAK/ ■ HERRITARRAK/



→ **DOKUMENTAZIO** motaren arabera:

- DOKUMENTU HISTORIKOAK
- ADMINISTRAZIO dokumentuak






HONDARRIBIKO UDALA


→ Kontsultaren TEMATIKAREN arabera:

- ◆ ADMINISTRAZIO OROKORRARI BURUZKO GAI ETA ESPEDIENTEAK
- ◆ HIRIGINTZAKO GAI ETA ESPEDIENTEAK
- ◆ ANTZINAKO POSTALAK ETA ARGAZKIAK
- ◆ IKERKETA HISTORIKOA



→ Kontsulta burutzeko BIDEAREN arabera:


- ⇒ Bertara joanda
- ⇒ Internet/mail bidezkoa
- ⇒ Telefono bidezkoa
- ⇒ Eskutitza





HONDARRIBIKO UDALA

→ Kontsulten garapena urteka:



◆◆◆




UDAL ARTXIBOAREN AURREKONTUA
Artxibo Zerbitzuak izan duen aurrekontu garapena hauxe izan da:

⇒ 1996.....	5.345.000 Pzta..
⇒ 1997.....	6.789.916 Pzta.
⇒ 1998.....	9-060.269 Pzta.
⇒ 1999.....	20.137.017Pzta.
⇒ 2000.....	13.916.073Pzta.
⇒ 2001.....	15.157.473 Pzta.
⇒ 2002.....	73.404,00€
⇒ 2003.....	61.853,00€
⇒ 2004.....	89.153,00€
⇒ 2005.....	54.106,00€
⇒ 2006.....	57.000,00€
⇒ 2007.....	53.300,00€
⇒ 2008.....	101.940,00€
⇒ 2009.....	164.698,00€
⇒ 2010.....	119.284,23€
⇒ 2011.....	93.867,10€
⇒ 2012.....	94.074,00€
⇒ 2013.....	115.990,00€
⇒ 2014.....	129.999,69€
⇒ 2015.....	82.439,07€
⇒ 2016 (ez dago sartuta pertsonal gastuei, Gizarte Segurantzari eta abarri buruzko aurrekontuaren 1 kapitulua)	
⇒ Artxibo Administratiboa.....	90.300€
⇒ Artxibo historikoa.....	62.000€
⇒ 2017 (ez dago sartuta pertsonal gastuei, Gizarte Segurantzari eta abarri buruzko aurrekontuaren 1 kapitulua)	
⇒ Artxibo Administratiboa.....	90.300€
⇒ Artxibo Administratiboa.....	110.075€



HONDARRIBIKO UDALA

AURREKONTUAREN GARAPENA



◆◆◆